EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
SARRERA · ENTRADA
2013 ABR. 11
Nº 3552 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

Euzko Abertzaleak Legebiltzar Taldea
Grupo Parlamentario Nacionalistas Vascos

**A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO**

Luis Javier Telleria Orriols, portavoz suplente del Grupo Parlamentario Euzko Abertzaleak - Nacionalistas Vascos, al amparo del vigente Reglamento de la Cámara, tiene el honor de presentar las siguientes **ENMIENDAS** a la Proposición de Ley, de Modificación de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco. [10/09/02/03/0001]

**EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI**

Luis Javier Telleria Orriolsek, Eusko Abertzaleak Legebiltzar Taldeko ordezko bozeramaileak, indarrean dagoen Ganberako Erregelamenduaz baliatuz, ohorez honako **ZUZENKETAK** aurkezten dizkio Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, aldetzeari buruzko Lege Proposamenari. [10/09/02/03/0001]

Vitoria-Gasteiz, 11 de abril de 2013.

Luis Javier Telleria Orriols

Becerro de Bengoa, z/g. - 01005 VITORIA – GASTEIZ - Tf. 945 00 40 50 / 945 00 40 52 - Fax zk. 945 140 085 - e-helbidea: euzkoabertzaleak@parlam.euskadi.net

ENMIENDA 1.- DE MODIFICACION

Se propone modificar la redacción del apartado 4 del artículo 17 (en la nueva redacción, apartado 5 del Artículo 17): "Dentro de los límites y zonas de afección de los espacios naturales protegidos no podrá llevarse a cabo explotación minera alguna, ni a cielo abierto ni de forma subterránea. De igual manera, queda prohibida la exploración y explotación de hidrocarburos mediante la técnica de fracturación hidráulica o fracking" y renumerarlo como 17.5.

Por esta otra redacción:

17.5. "En los espacios naturales protegidos y sus zonas de afección se prohibirán las actividades extractivas mineras que resulten incompatibles con los valores ambientales que se protegen. Serán los instrumentos de planificación y/o gestión de cada espacio natural protegido los que determinen dicha incompatibilidad".

JUSTIFICACION: El adecuado uso de la terminología CNAE (Clasificación Nacional de Actividades Económicas) y la no correspondencia con la doctrina constitucional de las prohibiciones genéricas, así como la derivación a las normativas propias de cada espacio protegido, parecen más apropiadas para la regulación de actividades impactantes con el medio natural.

1. ZUZENKETA.- ALDATZEKOA

17. artikuluaren 4. puntua aldatzeko proposamena (erredakzio berrian, 17. artikuluko 5. puntua): "Natura Gune babestuen mugetan eta horien eragin eremuetan ezingo da meatzaritza ustiaketarik burutu, ez aire zabalean, ez lurpean. Halaber, debekatuta dago hidrokarburoak aztertzea edo ustiatzea haustura hidraulikoaren edo fracking izeneko teknikaren bidez", eta puntu honi 17.5 zenbaki berria ezartzeko proposamena,

Honako beste idatziaz aldatzeko:

17.5. "Natura Gune babestuetan eta horien eragin eremuetan ezingo dira zaindu nahi diren ingurune-balioekin bateraezinak diren meatzaritza erauzte-jarduerak egin. Babestutako gune natural bakoitzaren plangintza edota kudeaketa instrumentuak izango dira bateraezintasuna xedatuko dutenak."

ZIOA: Ekonomia Jardunen Sailkapen Nazionalaren terminologia egokia erabiltzea, eta ez debeku generikoei dagokion doktrina konstituzionala, hala nola babestutako gune bakoitzaren neurri propioeri dagozkionak aproposagoak dirudite gune naturalarekin harremanetan dauden jardunen arautzerako.

Becerro de Bengoa, z/g. - 01005 VITORIA – GASTEIZ - Tf. 945 00 40 50 / 945 00 40 52 - Fax zk. 945 140 085 - e-helbidea: euzkoabertzaleak@parlam.euskadi.net

## ENMIENDA 2.- DE MODIFICACION

Se propone sustituir la Disposición Transitoria Única aprobada por la Ley 1/2010, de modificación de la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

"Las explotaciones mineras existentes a fecha de la aprobación de la presente ley dentro de los límites y zonas de afección de los espacios naturales protegidos no podrán ampliar su explotación dentro de dichos espacios ni a través de nuevos proyectos ni por modificación de los que se hallen en ejecución en el momento de entrada en vigor de la modificación del artículo 17.

Terminada la actividad de explotación dentro de los límites y zonas de afección de los espacios naturales protegidos conforme a los permisos y proyectos actualmente en vigor, las personas físicas o jurídicas titulares deberán ejecutar los proyectos de restauración en vigor y desmantelar todas las instalaciones existentes, tanto las relacionadas directamente con la explotación como las llamadas de beneficio".

Por esta otra redacción:

"Las actividades extractivas autorizadas, que a fecha de la aprobación de la presente ley se hallen en ejecución dentro de los límites y zonas de afección de los espacios naturales protegidos, no podrán ampliar su explotación dentro de dichos espacios ni a través de nuevos proyectos ni por modificación de los que se hallen en ejecución, en tanto no se apruebe la modificación del correspondiente plan de Ordenación de los Recursos Naturales".

JUSTIFICACION: Por coherencia con la enmienda N° 2, se debería modificar la disposición adicional que alude expresamente al artículo enmendado.

## 2. ZUZENKETA.- ALDATZEKOA

Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legearen aldaketarako 1/2010 Legeak onetsitako Xedapen Iragankor Bakarra aldatzea proposatzen da.

"Lege hau onartzeko datan babestutako naturguneen mugen eta eragin-eremuen barruan dauden meatze-ustiapenek ezingo dute beren ustiapena zabaldu naturgune horien baitan, ez proiektu berrien bidez, ez 17. artikuluaren aldaketa indarrean sartzen den unean gauzatzen ari diren proiektuak aldatzearen bidez.

Une honetan indarrean dauden baimen eta proiektuen araberako ustiapen-jarduera amaitzen denean babestutako naturguneen mugen eta eragin-eremuen barruan, pertsona fisiko edo juridiko titulardunek indarrean dauden leheneratzeko proiektuak gauzatu beharko dituzte eta bertan dauden instalazio guztiak kendu beharko dituzte, ustiapenarekin lotura zuzena dutenak nahiz onurakotzat jotzen direnak."

Honako beste idatziaz:

"Lege hau onartzeko datan babestutako naturguneen mugen eta eragin-eremuen barruan lanean dauden meatze-jarduera baimenduek ezingo dute beren ustiapena zabaldu naturgune horien baitan, ez proiektu berrien bidez, ez gauzatzen ari diren proiektuak aldatzearen bidez, dagokion Natur Baliabideen Antolamendurako planaren aldaketa onartu baino lehen, edo Gobernu Kontseiluak balioztatutako interes publikoko premiazko arrazoiak daudenean".

ZIOA: 2. zuzenketarekiko koherentziaz, zuzendutako artikulua espreski aipatzen duen xedapen gehigarria aldatu beharko litzateke.

ENMIENDA 3.- DE ADICION

Se propone añadir un nuevo artículo 17.4 con el siguiente texto: "A los efectos del punto anterior, en caso de solaparse en un mismo lugar distintas figuras de espacios protegidos, las normas reguladoras de los mismos así como los mecanismos de planificación deberán ser coordinados para unificarse en un único documento integrado en el Plan de Gestión del Espacio, al objeto de que los diferentes regímenes aplicables en función de cada categoría conformen un todo coherente".

JUSTIFICACIÓN: Ante los nuevos espacios incluidos en la Red de Espacios Naturales (Red NATURA 2000) incorporar la necesidad de adecuar los instrumentos ordenadores en los supuestos de superposición de figuras de protección sobre el mismo espacio, así como facilitar a Administraciones gestoras y propietarios de terrenos una comprensión unificadora de la normativa.

3. ZUZENKETA.- GEHITZEKOA

17.4 artikulu berria gehitzea proposatzen da honako testuarekin: "Aurreko puntuaren ondorioetarako, gune babestuetarako figura desberdinak leku berean gainezarriko balira, berauen arauak zein plangintza mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, Espazioaren Kudeaketa Planaren baitan, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen erregimenek osotasun koherente bat osatzearen helburuarekin".

ZIOA: Espazio beraren babeserako figuren gainezartzearen suposizioetan tresna antolatzaileak doitzearen beharra txertatzea Natura Guneen Sarean (NATURA 2000 Sarea) sartutako gune berrien aurrean, hala nola kudeatuko duten Administrazioei eta lursailen jabeei araudiaren ulerkuntza bateratua ematea.

ENMIENDA 4.- DE MODIFICACION

Se propone modificar el orden de los apartados del artículo 17, pasando a ser el actual apartado 17.4, apartado 5 del citado artículo.

JUSTIFICACION: Mantener un orden coherente de comprensión ante el nuevo artículo a añadir propuesto en la Enmienda nº 3.

4. ZUZENKETA.- ALDATZEKOA

17. artikuluko zatien ordena aldatzeko proposamena, egun 17.4 dena artikulu horren 5. puntua izatera pasatzeko.

ZIOA: 3. Zuzenketan gehitzeko proposatutako artikulu berria dela-eta, ulermenerako ordena koherente bat izatea.

Becerro de Bengoa, z/g. - 01005 VITORIA - GASTEIZ - Tf. 945 00 40 50 / 945 00 40 52 - Fax zk. 945 140 085 - e-helbidea: euzkoabertzaleak@parlam.euskadi.net

**ENMIENDA 5 DE ADICIÓN**

Se propone añadir un artículo 19.bis con la siguiente redacción:

19.bis.1- La formulación de las propuestas de Lugares de Importancia Comunitaria se realizará por el Gobierno Vasco, garantizándose en el procedimiento de selección la participación real y efectiva de las Administraciones públicas afectadas y de los sectores sociales y público interesado. Dicha selección se realizará en base a los criterios contenidos en el anexo III de la Directiva 92/43/CE y a la información científica pertinente.

19.bis.2.- Los procedimientos de declaración de los lugares de la Red Natura 2000 garantizarán la participación real y efectiva de las Administraciones públicas afectadas y del público interesado.

19.bis.3.- Se incluirá en el expediente, desde las fases iniciales de su tramitación, una memoria económica que recoja expresamente las estimaciones de lo que se considere necesario en relación con la cofinanciación comunitaria establecida en el artículo 8 de la Directiva 92/43/CE.

19.bis.4.- Los Decretos de declaración de Zonas Especiales de Conservación (ZEC) y de Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA) incluirán necesariamente la cartografía del lugar con su delimitación, los tipos de hábitats de interés comunitario y especies animales y vegetales que justifican la declaración, junto con una valoración del estado de conservación de los mismos, los objetivos de conservación del lugar y el programa de seguimiento.

19.bis.5.- En desarrollo de los Decretos de declaración de Zonas Especiales de Conservación (ZEC) y de Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA), los órganos forales de los Territorios Históricos elaborarán los

**5. ZUZENKETA.- GEHITZEKOA**

19.bis artikulua gehitzeko proposamena, honako testuaz:

19.bis.1.- Eusko Jaurlaritza izango da Komunitatearen Intereseko Guneak proposatuko dituena, eragina duten Administrazio publikoen eta interesa duten sektore sozial eta publikoen egiazko partehartzea ziurtatuz prozedimenduan. Aukeraketa hori 92/43/CE zuzentarauaren III. gehigarrian datozen kriterioetan eta dagokion informazio zientifikoan oinarrituta egingo du.

19.bis.2.- Natura Sarea 2000 guneen izendatzerako prozedimenduek eragindako Administrazio publikoen zein interesa duen publikoaren partehartze egiazkoa eta eraginkorra bermatuko dute.

19.bis.3.- Txostenak, bere tramitazioaren hasierako faseetatik hasita, memoria ekonomiko bat izango du bere baitan, zeinak espreski jasoko dituen 92/43/CE Zuzentarauaren 8. artikuluan jasotako kofinantzazio komunitarioaren arabera beharrezkotzat hartzen diren aurreikuspenak.

19.bis.4.- Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Hegaztien Babeserako Eremu Bereziak izendatzeko Dekretuek lekuaren eta bere mugatzearen kartografia izan beharko dituzte halabeharrez, interes komunitarioaren habitat motak eta izendapena arrazoitzen duten animalia eta landare espezieak, horien kontserbazio egoerari buruzko balorazio batekin batera, lekuaren kontserbazio-helburuekin eta jarraipen-programa batekin batera.

19.bis.5.- Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Hegaztien Babeserako Eremu Bereziak izendatzeko Dekretuen garapenean, Lurralde Historikoetako foru organuek kudeaketa planak egingo dituzte, bere baitan honakoak jasoko

planes de gestión que incluyan las medidas apropiadas para mantener los espacios en un estado de conservación favorable, las medidas apropiadas para evitar el deterioro de los hábitats naturales y de los hábitats de las especies, así como las alteraciones que repercutan en las especies que hayan motivado la designación de estas áreas. Estos planes deberán tener en especial consideración las necesidades de aquellos municipios incluidos en su totalidad o en un gran porcentaje de su territorio en estos lugares.

dituztenak: eremuak zaintze egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalen eta espezien habitaten hondatzea ekiditeko neurri egokiak, hala nola gune hauen izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dizkieten aldaketak ekiditeko neurriak. Plan hauek bereziki aintzat hartu beharko dituzte osoki zein bere lursoruaren zati handi bat eremu hauetan dauzkaten udalerrien beharrak.

19.bis.6.- En el caso de que las Zonas Especiales de Conservación (ZEC) y las Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA) coincidan con parques naturales, los Decretos de declaración de las mismas deberán contemplar lo previsto en el artículo 17.4.

19.bis.6.- Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Hegaztien Babeserako Eremu Bereziak parke naturalekin bat egingo balute, horiek izendatzeko Dekretuek 17.4 artikuluak aurreikusitakoa kontuan izan beharko dute.

JUSTIFICACION: Necesidad de dotar de un marco específico de declaración a los nuevos espacios incluidos en la Ley en la modificación recogida en la Ley 1/2010 de modificación de la Ley de Conservación de la Naturaleza.

ZIOA: Natura Babesteko Legea aldatzeko 1/2010 Legean jasotako eremu berriek izendapenerako marko berezia ezarri beharra.

## ENMIENDA 6.- DE MODIFICACION

Se propone modificar la redacción del párrafo final del artículo 8, que dice: "la propuesta del Consejo de Gobierno se realizará conjunta por los Departamentos de Agricultura y pesca y de Urbanismo, vivienda y Medio ambiente" por la siguiente redacción:

"La propuesta al Consejo de Gobierno se realizará de forma conjunta por los Departamentos de la Administración General del País Vasco competentes en razón de la materia."

JUSTIFICACIÓN: Razones de técnica legislativa aconsejan esta modificación. Los cambios periódicos que se producen en la reordenación de Departamentos de la administración autonómica y en la distribución de competencias entre los mismos aconsejan esta nueva formulación que evita la confusión y dota al texto de mayor seguridad jurídica.

## 6. ZUZENKETA.- ALDATZEKOA

8. artikuluaren azken parrafoaren idazketa aldatzeko proposamena, honako hau dioena: "Jaurlaritzako Kontseiluari egin beharreko proposamenak batera egin beharko dituzte Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak", horrela idatzita egotera pasatzeko:

"Gobernu Kontseiluaren proposamena amankomunean egingo dute Euskal Herriko Administrazio Orokorrean gai horretan eskumena duten Departamentuek".

ZIOA: Teknika legegilearen inguruko arrazoiek aldaketa hau gomendatzen dute. Autonomia administrazioaren berrantolatzean aldizka gertatzen diren aldaketek eta beraien arteko eskumenen banatzeak formulazio berri hau gomendatzen dute, zalantzak ekidinez eta testuari segurtasun juridiko handiagoa emanez.

Becerro de Bengoa, z/g. - 01005 VITORIA - GASTEIZ - Tf. 945 00 40 50 / 945 00 40 52 - Fax zk. 945 140 085 - e-helbidea: euzkoabertzaleak@parlam.euskadi.net

ENMIENDA 7.- DE MODIFICACION

Se propone modificar la redacción de las letras b), c) y g) del apartado 4 del artículo 30, que dicen:
b) Un representante del departamento de Agricultura y Pesca.
c) Un representante del departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.
g) Tres personas de reconocido prestigio, designadas por el Consejero de Agricultura y pesca.

por la siguiente redacción:

b) Un representante del Departamento de la Administración General del País Vasco competente en materia de ordenación de recursos naturales y conservación de la naturaleza.
c) Un representante del Departamento de la Administración General del País Vasco competente en materia de agricultura.
g) Tres personas de reconocido prestigio, designadas por el Departamento de la Administración General del País Vasco competente en materia de ordenación de recursos naturales y conservación de la naturaleza.

JUSTIFICACIÓN: La misma justificación recogida en la enmienda primera.

7. ZUZENKETA.- ALDATZEKOA

30. artikuluko 4 zatiaren b), c) eta g) letren idazketa aldatzea proposatzen da, honako hau diotenak:
b) Nekazaritza eta Arrantza Saileko ordezkari bat.
c) Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko ordezkari bat.
g) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailburuak hautatuko dituen izen handiko hiru aditu.

horrela idatzita egotera pasatzeko:

b) Euskal Herriko Administrazio Orokorrean Baliabide naturalen antolamenduan eta naturaren babestean eskumena duen Departamentuko ordezkari bat.
c) Euskal Herriko Administrazio Orokorrean Nekazaritza gaian eskumena duen Departamentuko ordezkari bat.
g) Euskal Herriko Administrazio Orokorrean Baliabide naturalen antolamenduan eta naturaren babestean eskumena duen Departamentuak izendatutako eta izen handiko hiru aditu.

ZIOA: Lehen zuzenketan jasotako zio berdina.

Becerro de Bengoa, z/g. - 01005 VITORIA - GASTEIZ - Tf. 945 00 40 50 / 945 00 40 52 - Fax zk. 945 140 085 - e-helbidea: euzkoabertzaleak@parlam.euskadi.net

ENMIENDA 8.- DE SUPRESIÓN

A la exposición de motivos

JUSTIFICACIÓN: En coherencia con las modificaciones propuestas, además de no aportar ningún valor a la motivación de la ley, en tanto se entiende que es una modificación puntual ante un problema concreto, que posteriormente se globaliza efectuando una práctica legislativa poco recomendable al pretender normar especificidades desde la generalidad.

8. ZUZENKETA.- EZABATZEKOA

Zioen azalpena.

ZIOA: Proposatutako aldaketekiko koherentziaz, legearen motibaziori inongo baliorik ez emateaz gain, ulertzen baita aldaketa puntual bat dela arazo konkretu baten aurrean, geroago globalizatu egiten dena oso gomendagarria ez den jardun legegile bat eginez, orokortasunetik espezifikotasuna arautu nahi baitu.

## ENMIENDA 9.- DE SUPRESION

A la exposición de motivos de la Ley 1/2010 de modificación de la Ley 16/1994 de Conservación de la Naturaleza del país vasco.

JUSTIFICACIÓN: Por la misma razón expresada para la enmienda nº 2, y dado que las enmiendas propuestas también pretenden modificar la Ley 1/2010, resulta coherente suprimir la exposición de motivos citada.

## 9. ZUZENKETA.- EZABATZEKOA

Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legearen aldaketarako 1/2010 Legearen zioen azalpena.

ZIOA: 2. Zuzenketan azaldutako arrazoi bera dela-eta, eta aurkeztutako zuzenketek 1/2010 Legea aldatzeko asmoa ere badutenez, koherentea da aipatutako arrazoien azalpena ezabatzea.

Becerro de Bengoa, z/g. - 01005 VITORIA - GASTEIZ - Tf. 945 00 40 50 / 945 00 40 52 - Fax zk. 945 140 085 - e-helbidea: euzkoabertzaleak@parlam.euskadi.net

## ENMIENDA 10.- DE ADICIÓN

Se propone añadir una Disposición Final a la Proposición de Ley con la siguiente redacción:

"Se autoriza al Gobierno para que, en un plazo no superior a seis meses desde la entrada en vigor de esta ley, refunda en un solo texto la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, la Ley 1/2010, de 11 de marzo, de modificación de la anterior y la presente Ley. El texto refundido se limitará a integrar ambas leyes en un único texto y renumerar los artículos, capítulos y disposiciones que fuera necesario, así como a adecuar las remisiones internas de las leyes objeto de refundición a la nueva numeración. Asimismo, realizará las modificaciones que se precisen en función de las modificaciones y derogaciones efectuadas por la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza".

JUSTIFICACIÓN: Razones de seguridad jurídica aconsejan disponer de un único texto normativo que integre las sucesivas modificaciones a las que se ha visto sometida la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

## 10. ZUZENKETA.- GEHITZEKOA

Lege Proposamenari Azken Xedapen bat gehitzeko proposamena, horrela idatzita:

"Gobernuari baiemena ematen zaio lege hau indarrean sartu eta 6 hilabeteko gehienezko epean, testu bakar bat birsortzeko honako hauek batzeko: 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Naturaren Babeserako; martxoaren 11ko 1/2010 Legea, aurrekoa aldatzekoa; eta honako hau. Testu birsortua lege horiek testu bakarrean bateratzera eta beharrezko artikuluak, kapituluak eta xedapenak berrizendatzera mugatuko da, hala nola zenbakikuntza berrietara egokitzera legeen barne-bidalketak. Halaber, martxoaren 17ko 2/2011 Ehizaren Legearen arabera egindako aldaketa eta indargabetzeen arabera beharrezkoak diren aldaketak egingo ditu.

ZIOA: Segurtasun juridikoaren inguruko arrazoiek gomendatzen dute ekainaren 30eko Natura Babesteko Euskal Herriko 16/1994 Legeak jasan dituen ondoz ondoko aldaketak bateratuko dituen testu arautzaile bakar bat izatea.